

Osoko bilkura

Baionako Herriko Etxean, 2017ko ekainaren 30ean.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Davant, Jean-Louis,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso eta
Osa, Erramun,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Sagra-
rio Aleman, Jose Irazu “B. Atxaga”, Pa-
txi Salaberri, Joan Mari Torrealdai eta
Mikel Zalbide.

Ahalak: Sagrario Alemanek ahala
Andres Iñigori; Jose Irazu “B. Atxa-
ga”k ahala Andres Urrutiari; Patxi Sa-
laberrik ahala Andres Urrutiari; Joan
Mari Torrealdai ahala Andoni Sa-
garnari; Mikel Zalbidek ahala Andres
Urrutiari.

Batzarra, 2017ko ekainaren 30ean,
ostiralean, 09:45ean hasi da Baionan,
Herriko Etxean. Hasieran Yves Ugal-
de Baionako Kultura arloko axuantak
harrera egin die euskaltzainei. Azpi-
marratu duenez, Baionako Herriko
Etxearentzat ohorea da Euskaltzain-
diak Osoko bilkura Baionako Herri-
ko Etxean egitea. Halaber, Baionako
Herriko Etxearen eta Euskaltzaindia-
ren arteko lankidetzaz azpimarratu eta
lan-jardun emankorra opatu die hu-
rreratu diren euskaltzainei.

Ondoren, A. Urrutia euskaltzain-
buruak euskaltzain guztiak agurtu, eta
etorririkoen zerrenda eta ahalak iraku-
rri ditu. Quoruma badela egiaztatu
ondoren, ekaineko Osoko bilkurari
hasiera eman zaio.

Segidan, eguneko aztergaiak jorratu dira.

1. Osoko bilkurako (2017-05-26) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

P. Zabaleta euskaltzainak 5. orrialdeko <<... parte har dezakete euskaltzain oso, emerituek barne, hitzarekin eta botoarekin...>> pasartean <<... parte har dezakete euskaltzain osoek, emerituek barne, hitzarekin eta botoarekin...>> izan behar duela adierazi du. Eginiko iruzkina onartu da Osoko bilkuran. Barne erregeletan aldatu edo gehitu beharreko pasarteetan bestelako zuzenketa batzuk ere egin ditu. Barne erregeletak txukuntzeko, orrazteko eta argitaratzeko urratsak egiten ari direla gogorarazi zaió.

A. Urrutia euskaltzainburuak beste oharren bat egin nahi den galdetu du. Hala-eraz egon ez denez, bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika. “Historiako gizatalde nagusiak eta ordena militar eta ospitale ordenak”. Aurkeztu

Aztergaia jorrazteko, Alfontso Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria batzar-aretera sartu da. A. Mujikak araugaia aurkeztu du, bi ataletan banatua. Batetik, ordena militar eta ospitalario nagusien zerrenda. Ordena nagusiak baino ez dira jaso. Haietako batzuek garrantzi eta itzal handia izan zuten historiako garai batzuetan, eta beste batzuk gaur egun ere badira oraindik, nahiz eta ohorezko elkarteak besterik ez izan. Erakunde-izenak dira, eta euskaraz emateko duten arazo bakarra itzulpenarena da: gehienbat izendapen deskribatzaileak dira, leku-izenak eta santu-izenak ere badituztenak, eta, haien izenak hizkuntzaz hizkuntza egokitzen dira.

Bigarren atalean, munduko zenbait gizatalde garrantzitsu jaso dira. Gizataldeak izen arruntak dira, hau da, hiztegi arruntetan jasotzeko izenak dira, ez izendapen bereziak. Zerrendan agertzen diren batzuk jada *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ageri dira, beraz, ez dira aztertzeakoak. Baina biltze-lan sistematikoa egin denez, denak jaso dira, eta gero ikusi da jada arautuak dauden ala ez. Zerrenda bi sailetan banatu da. Lehenengoan, islamaren eremuko izenak ageri dira, haietan amaiera sistematikoak (-i, -ita) aztertu beharrekoak zirelako: -i amaiera dagokio, berez, nahiz eta lehenetik xiita arautua dagoen *Euskaltzaindiaren Hiztegian*; horregatik, proposatzen da xii ere onartzea (bitasun hori badago, adibidez, gaztelaniaz eta ingelesez), eta gainerakoetan -i hartzea (suni, adibidez). Berezkoa -i dela ikusten da, adibidez, era-

torrietan: nahiz eta frantsesez chiite eta sunnite erabili, eta gaztelaniaz chiita/chii eta sunita/suní formak izan, chiisme eta chiismo eta sunnisme eta sunismo dira forma bakarrak (chiitisme edo suniitisme gisakorik ez dago). Bigarren sailean, berriaz, erlijio-talde eta izaera politikoko talde nagusiak ageri dira, islamaren eremuaz kanpokoak.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea irailaren 8ra arte irekitzea erabaki da Osoko bilkuran.

3. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduari esku-ematea, Barne erregelaren 106. artikulua arabera

E. Osa idazkariordeak Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak batzorde ahaldunduari esku emateko proposamena irakurri du. Proposamen hori Zuzendaritzak erabaki zuen, 2017ko ekainaren 28an eginiko bilkuran.

P. Zabaletak 4.2. puntuari dagokionez, batzordeko kide ez diren euskaltzainek eginiko oharrak direla eta, beren parte hartzeari buruz galdetu du. Halaber, M. Azkaratek prozedurari buruzko argibideak eskatu ditu.

A. Urrutia euskaltzainburuak azaldu duenez, egiten den proposamena ez da berria. Izan ere, *Hiztegi Batua* aurrera eramanez, lehengo ere sortu zuen Euskaltzaindiak batzorde ahaldundua. Helburua da batzorde ahaldundu horretan ahalik gehien aurreratzea eta adostasunik ez dagoen kasuetan, hitz konkretu horiek Osoko bilkurak aztertzea, oharrak egitea eta dagokion erabakia hartzea. Batzordeko kide ez diren euskaltzainek parte hartu ahal izango dute, betiere egiten dituzten oharren inguruabarrean.

A. Sagarna batzorde ahaldunduko buruak, bere aldetik, azken urteetako ibilbidea gogorarazi du. Egiten diren oinarriko lanak ongi pentsatuak, dokumentatuak eta adibideez hornituak egon ohi dira. Ondorioz, egiten diren oharrak funts gutxiakoak izan ohi dira, ez behintzat aurrean eginikoak ezerezean uzteko modukoak.

A. Urrutiak gogorarazi du jadanik badela Euskaltzaindiaren batzorde ahaldundu bat, Argitalpen batzordea hain zuzen ere, eta han bideratzen direla Euskaltzaindiaren argitara eman beharreko argitalpenak.

A. Sagarnak aipatu duenez, euskaltzainek egin ditzaketan oharrez gain, erabiltzaileek aldi-aldi egiten dituzte oharrak, iruzkinak eta zuzenketa proposamenak Internet bidez. Inoiz, akatsen bat atzematen dutelako, adibideren bat egokia ez

delako edo dena delako arrazoiengatik. Halakoak ere etengabe iristen dira “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” egitasmoaren lantaldera. Beraz, horiek ere batzorde ahaldundura eramango dira.

A. Urrutia euskaltzainburuak *Euskaltzaindiaren Hiztegiari* egiten zaizkion gehikuntzak argitaratzeko prozedurari buruz galdetu du. Ea dena egin arte itxaron behar den, aldian-aldian argitaratzea komeni den eta abar. A. Sagarnak erantzun du aldizkotasun batez (urtean behin edo birritan) eta multzoka argitara ematea komeni dela, nahasmendurik ez sortzeko eta erabiltzaileak jakitun egon ahal izateko, bide batez, behar diren argibideak eta azalpenak emanez.

Euskaltzainburuak Zuzendaritzak eginiko proposamena onartzen den galdetuta, Osoko bilkurak Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak batzorde ahaldunduari esku ematea erabaki du, Barne erregelen 106. artikulua araber.

Ondoren, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* 8. liburukia aurkezteko Osoko bilkura eten egin da.

12:00etan Osoko bilkurak segida izan du.

4. Euskaltzaindiaren Organigrama Akademikoa (2017-2021)

E. Osa idazkariordeak maiatzaren 26ko Osoko bilkuran berretsitako Euskaltzaindiaren Organigrama Akademikoa (2017-2021) Euskaltzaindiaren webgunean dagoela aditzera eman du. Argitaratu ostean, batzordeetako eta lantaldeetako buruei zein idazkariei mezu elektronikoa bana bidali zaie gainbegiratzeko eskatuz, bai eta egitasmoetako zuzendariei ere. Ondorioz, behin betiko Organigrama ageri da webgunean. Batzordeak, lantaldeak eta egitasmoak aurkezteko modua ere bateratu da webgunean.

Aurrera begira bi eginkizun geratzen dira. Batetik, atal batzuetako (egitasmoak eta abar) testuei begiratzeko, eta behar izanez gero, eguneratzea. Bestetik, euskaltzainen soslaiak eguneratu, eta batzordeetako eta egitasmoetako partaidetzak gaurkotzea.

5. Esku artekoak

5.1. Espainiako Sari Nazionaletako epaimahaiko kideak. Zuzendaritzak Espainiako Sari Nazionaletarako epaimahaiko kideak proposatu ditu, 2017ko maiatzaren 24ko eta ekainaren 16ko bilkuretan erabakitakoen arabera. Hona hemen proposatutakoen izenak:

- Premio Nacional de las Letras Españolas: Sagrario Aleman eta Andres Iñigo.
- Premio Nacional de Literatura (Poesía): Jon Kortazar eta Lourdes Otaegi.
- Premio Nacional Literatura (Poesía Joven “Miguel Hernández”): Karmele Jaio eta Sebastian Gartzia.
- Premio Nacional de Literatura (Narrativa): Miren Azkarate eta Patri Urkizu.
- Premio Nacional de Literatura (Ensayo): Josu K. Bijueska eta Ana Toledo.
- Premio Nacional de Literatura (Literatura Dramática): Jose Agustin Perez eta Arantzazu Fernandez.
- Premio Nacional a la Mejor Traducción: Asun Garikano eta Gotzon Lobera.
- Premio Nacional a la obra de un traductor: Asun Garikano eta Gotzon Lobera.
- Premio Nacional de Periodismo Cultural: Goizalde Landabaso eta Iñaki Mendizabal.

A. Toledok adierazi du hainbat izen Literatura Ikerketa batzordeak proposatutakoak direla eta epaimahaiko kideak lehenago proposatu beharko liratekeela, besteren artean, euskarazko obra bat eraman nahi izanez gero, itzulpena egiteko denbora nahikoa egon dadin. Aditzera eman da Ministerioak deialdiak berandu egiten dituela, zenbaitetan oinarriak aldatzen dituela eta itzulpenak ordaintzeko orduan hainbat zailtasun jarri dituela.

Espainiako Sari Nazionalen kontura, A. Urrutia euskaltzainburuak aditzera eman du Itzulpen Sari Nazionala dela eta, Euskaltzaindiak eginiko eskabidea kontuan hartuz, Ministerioak oinarriak aldatu dituela, eta, aurrerantzean, gaztelaniatik euskarara, galegora eta katalanera itzultitako lanak eta hizkuntza horietatik gaztelaniera eginiko itzulpenak ere kontuan hartuak izango direla.

Proposatutako izen guztiak berretsi ditu Osoko bilkurak.

5.2. Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak 2017. urteko hitzarmena izenpetu dute, ekainaren 19an. Akordio honen bitartez, 149.000 euroko ekarpena jasoko du Euskaltzaindiak. Besteak beste, Nafarroako onomastika eta toponimia ikertzeko eta gizarteratzeko eta Joakin Lizarragaren hiztegia aztertzeke erabiliko da diru-laguntza hori.

5.3. Euskaltzaindiaren Arabako ordezkariak lokal berriak izango ditu. Euskaltzaindiak aldi berrian dauzkan asmoak eta helburuak gauzatzeko asmoz, Zuzendaritza Gasteizko Udalarekin harremanetan jarri zen, 2016ko azaroaren 22an. Helburua Gasteizen lokal duinak eskuratzea da, bertan kokatzeko Ordezkariak eta Araban dauden egitasmoak eta, bide batez, batzordeetan, lantaldeetan eta egitasmoetan ari direnek ere bideohitzaldi sistema baliatu ahal izateko. Horrela, Gorka Urtaran Gasteizko alkateak Euskaltzaindiak, 2017. urtean, Simon Bolivar kalean, lokal berriak izango dituela iragarri zuen atzo, Gasteizko Udalean eginiko Osoko bilkuran.

5.4. Bilboko Udalaren eta Euskaltzaindiaren 2017ko lankidetzaren garapena. Bilboko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren inguruabarrean, euskal musikaren bidez, gazteen artean euskarekiko interesa eta erabilera sustatzeko asmoz, udazkenean, musika emanaldiak eskainiko ditu Euskaltzaindiak Bilboko egoitzan. Urrian eta azaroan egingo dira ekitaldiak, astelehenetan. Formatu txiki-ko musika emanaldiak izango dira. Euskaltzaindiak, Bilboko Udalarekin batera, irailean emango du gitarauaren berri.

5.5. Gaur banatuko diren liburuak. Batetik, Isabelle Echeverriak paraturiko *Piarres Larzabalaren antzerkigintza: 1950-1982. Euskarazko antzerki identitarioaren paradigmak* (Iker-33). Bestetik, Iñaki Camino euskaltzain urgazleak paraturiko *Amiküze eskualdeko (h)eskuara* (Mendaur XI).

5.6. Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria 2017. Zuzendaritzak Andres Iñigo euskaltzain oso eta Nafarroako ordezkaria aurkeztea erabaki du, 2017ko maiatzaren 24an eginiko bilkuran. Era berean, Euskaltzaindiaz gain, Andres Iñi-

goren hautagaitza aurkeztu dute Nafarroako Ikastolen Elkarteak, AEK-k, IKAK, Labayru Fundazioak, Euskalerrria Irratiak eta Euskokultur Fundazioak.

5.7. Hurrengo bilkurak:

Uztailaren 21ean Osoko bilkura egingo da Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, goizeko 10:00etan hasita.

Uztailaren 24an, astelehena, 10:30ean, Euskaltzaindiaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko hitzarmenaren urteko eranskina izenpetuko da Baionan, EEPren egoitzan.

6. Azken ordukoak

6.1. Euskaltzaindiaren Mendeurrena batzorde suntsikorra. A. Urrutia euskaltzainburuak aditzera eman duenez, uztailaren 3an, astelehenean, arratsaldeko 16:30ean, Euskaltzaindiaren Mendeurrena batzorde suntsikorrak lehenengo bilkura egingo du Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Mendeurrenaren inguruabarrean, euskaltzainen parte hartzea bultzatuko dela esan du euskaltzainburuak.

Eta beste aztergairik ez dela, 12:45 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana